

**Audioaren erreferentzia:** Bagoaz A2E14 Zikindu bakarrik ez.

**Maila:** A2

**Helburua:** Elkarri asmoak adieraztea.



**Funtzioa:** Planak eta asmoak adieraztea.

**Azken ekintza:** Bakoitzaren eta taldearen ikasteko plangintza egitea.

**Adierazpide linguistikoak:** Maiztasuna adierazteko formak: *-(e)ro, -(e)z behin.*


## 1- ENTZUN AURRETIK

### 1.1 Garbigailua jarri.

  Talde txikitan jarri eta idatzi zer lan egiten diren etxe batean. Ateratzen diren lan guztiak arbelean apuntatu, 3.1 ariketan erabiltzeko:

- *Garbigailua jarri.*
- *Arropa lisatu.*
- *...*




### 1.2- Zuk zer egiten duzu?

 Orain, binaka jarrita, elkarri galdetu behar diote haien etxean nork egiten duen lan bakoitza.

- *Zure etxean nork lisatzen du arropa?*
- *Gehienetan nire emazteak, baina batzuetan niri tokatzen zait.*

## 2- ENTZUN BITARTEAN

### 2.1 Zer egin behar dute?

   Entzun elkarrizketa eta lagunekin adostu erantzunak.

- Zer egin behar du Amaiak asteburuan? Pisan geratu masterreko lanak aurreratzeko.*
- Eta Josuk? Etxeko lanak egiteko aprobetxatu, lehenengo garbigailua jarri.*
- Lehen zer egiten zuen Josuk arroparekin? Gurasoen etxera eraman.*

### 2.2 Ai Josu!

   Entzun berriro.

- Zer moduz dabil Josu ikasketetan? Oso ondo.*
- Nolako arropa garbitu nahi du Josuk? Denetatik.*
- Noiztik ez du arropa garbitu? Hiru bat aste.*
- Zer botatzen dio Josuren amak arropa garbiari? Lixiba.*

## 3- ENTZUN ONDOREN

### 3.1 Egunero.

Hurrengo ariketetan maiztasuna adierazi beharko dute, gauzak *zenbatero* egiten dituzten. Horretarako azalpena eman:

**-(e)ro** atzizkia: *egunero, astero, urtero...*

Ez erabili egitura hori zenbakiekin: *\*hiru egunero*. Horrelakoetan **-(e)z behin** esan: *hiru egunez behin, bi astez behin...*



Hartu 1.1 ariketan atera diren etxeko lanak, eta, binaka jarrita, elkarrekin komenta dezatela haien etxean zein maiztasunekin egiten dituzten.

- *Zenbatero jartzen duzue garbigailua etxean?*
- *Normalean, garbigailua hiru egunez behin jartzen da, baina, arropa asko badago, egunero.*
- *Ba, gurean...*

### 3.2 Asmo onak.



Orain euskara ikasteko plangintza egingo dute. Lehenengo, bakoitzak berea:

- *Egunero etxeko lanak egingo ditut.*
- *Hiru egunez behin bideo bat ikusiko dut.*
- *Astero...*

Eta gero, denon artean, taldearena:

- *Ostiralero batek egunkariko berri bat irakurriko du...*

### TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Gosari bikaina egin dugu, Amaia!

AMAIA.— Bai, asteburua aprobetxatu nahi badugu, hasteko modurik onena da.

JOSU.— Zahartzen ari garela uste duzu?

AMAIA.— Ez, motel. Asteburuan pisuan geratzea erabaki nuen, masterreko lanak aurreratzeko.

JOSU.— Ba ni oso ondo nabil masterrean. Etxeko lanak egiteko aprobetxatuko dut asteburua.

AMAIA.— Zuk? Ez duzu arropa garbirik astelehenerako, ala?

JOSU.— Txiste ona, Amaia! Baina bai, lehendabizi garbigailua jarriko dut.

AMAIA.— Barkatu!

JOSU.— Ez da ezer. Zigor moduan, nola jarri behar den azaldu beharko didazu.

AMAIA.— Banengoen ba, ni...

### ETENA

AMAIA.- Tira, zer garbitu nahi duzu?

JOSU.— Arropa. Zer izango da ba?

AMAIA.— Bai, arropa bai; baina nolako arropa: arropa zuria, kolorezkoa, arropa delikatua, kirola egitekoa...

JOSU.— Ba... denetatik.

AMAIA.— Primeran, horixe da modurik onena arropa hondatzeko. Sailkatu egin behar da.

JOSU.— Bai, horixe izango da onena, garbigailua behin baino gehiagotan jarri beharko dudalako.

AMAIA.— Noiztik ez duzu ba arropa garbitu?

---

JOSU.— Hiru bat aste... Lehen gurasoen etxera eramaten nuen asteburuan. Baina aspalditik ez naiz joan eta...

AMAIA.— Alfer hori! Ezin dut sinetsi.

JOSU.— Bai, egia esan, sekula ez dugu asko lagundu etxean, eta gutxi ikasi dut etxeko lanak egiten.

AMAIA.— Tira. Lehendabizi, kolorezko arropa aukeratu, sartu garbigailuan, jarri detergentea eta aukeratu tenperatura hotza, 30-40 gradutan. Ordubetea prest izango duzu.

JOSU.— Eta arropa zuria, amatxo?

AMAIA.— Ba berdin-berdin, baina detergentea eta leungarria bota, eta 60-80 gradutan jarri.

JOSU.— Amak lixiba botatzen die.

AMAIA.— Ba deitu amari eta esan laguntzeko!

JOSU.— Eta gero, kiroletakoa nola garbitu esan beharko didazu.

AMAIA.— Ai, ze pazientzia eduki behar den zurekin. Ai ene!